

# **FUNTSEZKO JARDUERAK - AJIA Deliveries**

## **1-Hornitzaileak**

- Supermerkatuak izango dira gure elkarte klabeak, supermerkatuak haien produktuak emango dizkigute eta akordio bat egingo dugu haiek haien produktuak emateko eta gu produktu horiek bezeroei emango dizkiegu. Azkenean gure zerbitzua haien produktuetan oinarritzen da eta behar ditugu negozioa aurrera eramateko.
- **Akordioa:** gure akordioa urte batekoa izango da, akordio honen bidez supermerkatuak haien produktuak emango dizkigu prezio txikiago batean, gero gu produktu horiei prezioa igoko dizkiegu eta garraioko tasa ere sartuko dugu. Supermerkatuak gugandik publizitatea jasoko dute, haien produktuak web gunean jartzerakoan bezeroak haien produktuak ikusiko dituztelako.
- (Lidl, Eroski, BM, Dia, Mercadona, Carrefour...etab.) , haiek publizitatea lortuko dute gure enpresarekin.

## **2-FUNTSEZKO BAZKIDEAK**

**Jon:** Bezeroekiko arretan lan egingo du. Haien kezka entzuten eta arazoak konpontzen saiatuko da, telefono bidez eta gmail bidez. Gainera, bezeroak webgunean egiten dituzten galderak erantzungo ditu.

**Iker:** Finantziazioen arloan arituko da, zertan inbertitu behar den aztertuz, hileko gastuak gaitutuko baditugun eta irabaziak izaten hasiko baditugu, kostuak murrizteko aukerak bilatu,

**Ander:** Biltegian arituko da, produktuak furgonetatik jaisten eta apaletan antolatzen, gero banaketa prestatzeko. Beste biltegi batean lan egin du, horrelako jarduerak egiten, beraz, esperientzia du.

**Alaia:** Produktuen eskaerak jasoko ditu, ordenagailuaren bidez. Gero, eskaera guztiak antolatuko ditu eta Anderreri esango dio ze produktu eskatu dituzte gero berak produktuak antolatzeko.

## **3-Baliabideak**

- Gure produktuaz aparte biltegi bat izango dugunez hainbat produktu behar ditugu. Horretarako hornitzaile bakarra izango dugu, biltegi bat alokatuko dugulako, eta gure behar guztiak beteko dute guk emango diegun ezaugarriekin.

#### 4-Elkarteen motibazioa:

- Enpresa honekin, biok, gure enpresak eta elkarteak, onurak izango ditugu.
- Supermerkatuei, banatzeko lana kenduko diegu, guk banaketa hori egingo dugulako eta dirua aurreztuko dute zentsu horretan.
- Azkenik, **Rensolbox** zerbitzu ona emateko motibazioa izango du, gure enpresa handiagoa egiten bada biltegi gehiago beharko ditugulako, eta haiei berriro alokatuko diegu.

#### 5-Optimizazioa eta ekonomia funtsezko bazkideekin:

- Supermerkatuekin lortuko diren akordioak lagunduko digu haien produktuak merkeago erosteko, hilean diru asko inbertituko dugulako supermerkatu horietan eta haiek ikusiko dutelako dirua irabazten dutela gurekin.
- **Renbolsox**-ekin denbora pasatu ahala eta gure enpresa handitzen denean, biltegien alokairurako akordio bat egingo dugu, biltegi bat baino gehiago alokatzen badugu prezioa merkeagoa izango delako eta haiekin lotura sendoago bat sortuko da.

#### 6-Arriskuen eta ziurgabetasunaren murrizketa:

- Hasiera batean Bizkaiko supermerkatu guztiekin akordioak egingo ditugu, ondorioz zirkulu bat itxiko dugu eta negozioan sartzeko hezia sendotuko dugu. Handituz joango da zirkulu hau enpresa handitzen den heinean.
- Supermerkatuak diru-sarrera bat ziurtatuko dute hileru, ondorioz konfiantza lortuko dute gure enpresarekiko, arriskuak eta ziurgabetasunak kenduko dizkiegulako gutxinaka.